

Irakurri bi albiste hauek eta identifikatu:

izenburua

sarreratxoa

gorputza.

Ia Gasteiz osoa argindarrik gabe, ordu erdiz

09:50ak aldera gertatu da itzalaldia, eta zenbait auzotan izan du eragina. Bideetako argi-seinaleei, tranbiari eta hainbat erakunde publikori ere eragin die.

Gasteizko zenbait auzotan argindarrik gabe gelditu dira, 09:50ak aldera. Auzo batzuetan 10:20ak arte iraun du itzalaldiak.

Semaforoak eta bideetako argi-seinaleak itzalita egon dira. Horretaz gain, tranbiak zerbitzua eten du, ordu erdiz. Txagorritxu eta Santiago ospitaleei ere eragin die etenak.

Iberdrolak azaldu duenez, azpiestazio elektriko batean izandako arazoak eragin du itzalaldia.

Berria egunkaria (2018-11-28).

izenburua

sarreratxoa

gorputza.

Euskal ikertzaile batek historiako lehen ogi-hondarrak aurkitu ditu

Amaia Arranz ikertzailearen taldeak duela 14 400 urteko ogi baten hondarrak aurkitu ditu, Jordaniako aztarnategi batean.

Duela 14 400 urte, Jordaniako ipar-ekialdean bizi ziren ehiztari-biltzaileek historiako lehen ogiak egin zituzten, nekazaritza asmatu baino 4000 urte lehenago. Hala frogatu du Amaia Arranz ikertzaile taldearen aurkikuntzak.

Ikerketa-lana AEBko aldizkari zientifiko ezagun batek kaleratu du. Arranzek Kopenhageko Unibertsitatean egiten du lan, eta Londresko eta Cambridgeko unibertsitateetako beste ikertzaile batzuekin batera egin du aurkikuntza.

Jordaniako Shubayqa 1 aztarnategian 24 janari-hondar aurkitu eta aztertu ditu Arranzek. Ateratako ondorioen arabera, gure arbasoek garagarra, oloa eta espelta erabiltzen zituzten. Aurkitutako hondarrek antz handia dute European edo Turkian aurkitu dituzten Neolitoko ogiekin.

Arranzek hitzetan, «halako hondarrei antzematea ez da erraza, ez baitute forma zehatzik». Izan ere, ikertzaileak aitortu du hasieran ez zela aurkikuntzaz konturatu.

www.eih.com (moldataua)



Irakurri arretaz albistea.

Berrituta dator *Bago!az*

Bi denboraldi arrakastatsuren ostean, EITB 1ek *Bago!az* saioaren hirugarren denboraldia estreinatuko du gaur. Asteazkenetan 22:35ean emango dute, eta ostiraletan, 21:00etan.

Jabi Elortegik jarraituko du zuzendari lanetan, eta lehiaren dinamikan berrikuntzak egongo direla iragarri du. Saioko aurkezlea Zuriñe Hidalgo izango da, aurreko bi urteetan bezala. 16-17 urteko talentuak ikusteak sentsazio onak ematen dizkio: «Agerian gelditzen da Euskal Herrian artista ugari dagoela».

Talent show deritzonaren irabazleak, gainera, *Go!azen* telesailen parte hartzeko aukera izango du.

Berria egunkaria. 2019/02/27



Lotu bi zutabeak:

Nork?

Zer?

Noiz?

Non?

Albistea argitaratu zen egunean, gaueko 22:35ean.

Euskal Irrati Telebistaren 1. katean.

Bago!az telesailaren hirugarren denboraldia estreinatu du.

Euskal Irrati Telebistak.